



435/2020 EBAZPENA, AZAROAREN 9KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AGINTZEN BAITA, OINARRI OROKORRETAKO 16.1 ATALEKO HIRUGARREN PARAGRAFOAN XEDATUTAKOAREKIN BAT ETORRIZ, WEB ORRIAN ARGITARA DAITEZELA FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOEN LANBIDE TALDEKO FAK. ESP. PSIKOLOGO KLINIKO TEKNIKARI KATEGORIAKO TXANDA IREKIKO IZANGAIEN OPOSIZIO-FASEKO ETA LEHIAKETA-FASEKO EMAITZAK.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2016an eta 2017an deitutako hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA, 28. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urriaren 23ko 745/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzaren web orrialdean argitaratzeko agindu zen oposizioaldia gainditu zuten txanda irekiko izangaien behin-behineko zerrenda, azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa berezita, langile estatutarioa izateko hautaketa-probetan aritutako izangai hauen kasurako: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Psikologo Kliniko Teknikari kategoriakoak.

Esandako urriaren 23ko 745/2019 Ebazpenaren bigarren atalean jasotakoari jarraituz, izangaiak 15 egun baliodun zituzten, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak jartzeko.

Oinarri orokorretako 16.1 ataleko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariak, puntuazio-aldaketak kontuan hartuta, eta hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena jasotzen dituen zuzendari nagusiaren Ebazpena eman baino lehen, oposizio-fasearen eta lehiaketa-fasearen emaitzak jendaurrean jartzeko Ebazpen bat eman ahal izango du, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du interesdunek egoki deritzen alegazioak egin ahal izateko. Ebazpen hori Osakidetzaren web orrian argitaratuko da.

Izandako puntuazio-aldaketak ikusita, batez ere oinarri orokorretako 12.5.2 f) ataleko azken paragrafoan xedatutakoa betez, egindako zerbitzuen balorazioari buruzko erreklamazioak aintzat hartuta, eta indarrean dagoen legediak langileen arloan emandako ahalmenez baliatuz, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Osakidetzaren web orrian argitaratzeko agintzea, oinarrien 16.1 atalean agindutakoarekin bat etorritik, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide taldeko Fak. Esp. Psikologo Kliniko Teknikari kategorian, estatutupeko langile bihurtzeko oposizio-fasea txanda irekiaren bidez gainditu duten hautagaien puntuazioak, azken puntuazioaren arabera, lehiaketa eta oposizio-faseetan lortutako puntuazioak berezita. Hala, bada:

I) I. eranskinean, hautaketa-prozesua gainditu eta destinoa lortzeko aukera duten izangaien zerrenda.





II) II. eranskinean, hautaketa-prozesua gainditu duten eta I. eranskinean jasota ez dauden gainerako langileen zerrenda.

Bigarrena.– Oinarri orokorretako 16.1 oinarrian ezarritakoa betez, interesdunek 10 eguneko epea izango dute, ebazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egiteko. Horretarako, idazkia bidali beharko diote epaimahai kalifikatzaileko lehendakariari, eta, idazki horretan, arrazoiak adierazi eta alegazioak oinarritzeko justifikazio-agiriak erantsi beharko dituzte. Alegazioak izangaien behin betiko Ebazpenaren bidez ezetsi edo onartuko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 9an.


Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DEPARTAMENTO DE RECURSOS HUMANOS

iz: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARI NAGUSIA.



RESOLUCIÓN 435/2020, DE 9 DE NOVIEMBRE, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE ORDENA, CONFORME A LO DISPUESTO EN EL APARTADO 16.1 PÁRRAFO TERCERO DE LAS BASES GENERALES, LA PUBLICACIÓN EN LA PÁGINA WEB DE LOS RESULTADOS DE LA FASE DE OPOSICIÓN Y FASE DE CONCURSO DE LOS ASPIRANTES DEL TURNO LIBRE DE LA CATEGORÍA DE FAC. ESP. TÉCNICO PSICÓLOGO CLÍNICO DEL GRUPO PROFESIONAL DE FACULTATIVOS MÉDICOS Y TÉCNICOS CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS SANITARIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2016 y 2017, publicándose en el BOPV nº 28 de 8 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 745/2019, de 23 de octubre, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de la relación provisional de las personas aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fac. Esp. Técnico Psicólogo Clínico del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Conforme a lo dispuesto en el apartado segundo de la Resolución 745/2019, de 23 de octubre, los aspirantes interesados disponían de un plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la Resolución para formular las reclamaciones que considerasen oportunas.

Conforme a lo dispuesto en el apartado 16.1, párrafo tercero de las bases generales, la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza, atendiendo a las variaciones de puntuación producidas y con carácter previo a la Resolución del Director General que contenga la relación definitiva de personas aspirantes seleccionadas y la adjudicación de destinos, podrá dictar Resolución en la que se hagan públicos los resultados de la fase oposición y fase de concurso, estableciendo un plazo de 10 días hábiles para que las personas interesadas puedan efectuar alegaciones. Dicha resolución se hará pública a través de la página web de Osakidetza.

A la vista de las variaciones de puntuación producidas, especialmente las derivadas de la estimación, en cumplimiento de lo dispuesto en el último párrafo del apartado 12.5.2 f) de las bases generales, de las reclamaciones referentes a la valoración de los servicios prestados efectuada y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO

Primero.— Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud, conforme a lo dispuesto en el apartado 16.1 de las bases, de las puntuaciones de los aspirantes, por el turno libre, que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de



Fac. Esp. Técnico Psicólogo Clínico del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos, constituyendo:

I) El Anexo I, la relación de aspirantes que han superado el proceso selectivo con posibilidad de optar a destino.

II) El Anexo II, la relación del resto de personal que ha superado el proceso selectivo no incluido en el anexo I.

Segundo.— Al amparo de lo establecido en la base 16.1 de las bases generales, las personas interesadas dispondrán de un plazo de 10 días a partir del día siguiente a la publicación en la página web de la presente resolución, para efectuar las alegaciones que consideren pertinentes en escrito dirigido al presidente del tribunal calificador, indicando los motivos concretos y adjuntando la documentación justificativa en la que basan las mismas. Las alegaciones efectuadas serán rechazadas o estimadas por medio de la Resolución definitiva de aspirantes.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2020.



María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Fdo.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.